

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Inbertsioen Europako Bankuak MODERNA Planaren garapena 250 milioi euroekin finantzatzea proposatu du

Finantzaketa-ildo horien azken onuradunak 25 milioi euro arteko enpresa-proiektuak dituzten ETEak dira

Viernes, 10 de junio de 2011

Inbertsioen Europako Bankuak MODERNA Planaren garapena 250 milioi euroekin finantzatzea proposatu du. Proiektua IEBaren "pipeline"-an dago, eta 500 milioi euro baino gehiagoko induzitutako enpresa-inbertsioa sortuko du.

Datu horiek bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko jarduneko kontseilari Alvaro Miranda Simavillak eman ditu,

finantzaketako MODERNA ildoen berri emateko eskaini den prentsaurrekoan, Plana finantzatzeko ereduaren aurreikusitako tresnetako bat. Miranda kontseilariarekin batera, Politika eta Ekonomia Sustapeneko zuzendari orokor Cernin Martinez Yoldi izan da.

Jakitera eman denez, maileguaren helburua MODERNA Planeko estrategia-sektoreen barnean enpresa-proiektuak finantzatzea da. Finantzaketa-ildo horien azken onuradunak 25 milioi euro arteko enpresa-proiektuak dituzten ETEak dira. IEBaren finantzaketa % 50ekoa izango da, onuradunentzat aldeko baldintzekin, eta ezarritako epea 12 urtekoa da, 4 urteko gabealdiarekin.

Miranda lehendakariordeak adierazi du, halaber, IEBaren mailegu hori "Europako erakundeek MODERNA Planari ematen dioten bultzada dela, bai eta Nafarroaren ibilbide ekonomikoa aitortzea ere". Gogora ekarri du ere, IEBak Bideko Autobidea eta Nafarroa 2012 Plana proiektuak ere finantzatu dituela.

Uztailean IEBaren kontseiluak finantzaketa-proiektua behin betikoz onartu ondoren, aurreikusita dago MODERNAren finantzaketa-ildoak datorren irailetik aurrera operatibo izatea.

Maileguak emateko arintasun handia

Finantzaketako MODERNAren ildoak kanpoko mailegu eta finantzaketarekin osatzen dira, eta MODERNA Planak zehaztutako



Miranda lehendakariordea eta Cernin Martinez, IEBaren maileguaren aurkezpenaren.

indartzen ari diren sektoreetako proiektu eta enpresentzat da. Tresna hau abian jartzeko, Planaren finantzaketa ereduak ezartzen duenez, Esparru Hitzarmenak sustatuko dira, aldebikoak edota aldeaniztunak Nafarroako Gobernuaren, finantza-erakundeen eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren edo Inbertsoen Europako Bankuaren artean, baldintza zehatzak dituzten MODERNA proiektuak finantzatzeko; hala, baliabide ekonomikoen kopuru garrantzitsu bat proiektuak abian jartzeko erabiliko da.

Ekimen bat MODERNA proiektu kalifikatzea era arin eta garden batean egingo du MODERNA Fundazioak. Baldintza hori atea izango da, finantzaketako MODERNA Ildoen esparru-akordioan dauden finantza-erakundeek Plana garatzeko beharrezkoak diren finantza-baliabideak eman ditzaten.

MODERNA Plana finantzatzeko eredia

Gogoratuko denez, MODERNA Plana Nafarroako Parlamentuak onartu zuen 2010eko urriaren 1ean, eta iragan martxoaren 9an abian jarri zen haren garapena kudeatuko duen Fundazioaren sortze-ekitaldi nahiz aurkezpen publikoarekin.

MODERNA Planean finantzaketa publiko-pribatuko eredu bat jasotzen da. Arlo publikoan, aurrekontu-programak eta haien zenbatekoak aztertzea eta birbideratzea dakar, finkatutako helburuak lortzeko helburura era eraginkorragoan bideratzeko.

Planaren hiru ardatz estrategikoak sustatzeko (osasun-ekonomia, ekonomia berdea eta talentuaren ekonomia), MODERNAk finantzaketako oinarrizko hiru tresna jasotzen ditu MODERNA enpresa-proiektuetarako (enpresa berriak edo hedapen-proiektuak Planean jasotako arloetan), horiek guztiak elkarren artean lotuta: ekintzaileen MODERNA Bekak, Inbertitzaileen MODERNA Foruma; baterako inbertsioko MODERNA Funtsa; finantzaketako MODERNA Ildoak; eta enpresak finantzatzeko MODERNA Abala.

Une hauetan, aipatutako tresnetatik bi abian dira jada: ekintzaileen MODERNA Bekak eta Inbertitzaileen MODERNA Foruma, eta gaur goizean jakitera eman denez, aurten ere Finantzaketako MODERNA Ildoetan operatibo izango dira.